

Bertako eta kanpoko gazteek arbolak landatuko dituzte larunbatean

Puion elkartuko dira Haritzalde eta Kaebnai elkarteek antolatuta

a.z. - Jueves, 21 de Marzo de 2013 - Actualizado a las 05:22h

donostia. Bertako eta kanpoko 300 bat gazte elkartuko dira larunbatean Puion zuhaitzak landatzeko eta elkar ezagutzeko. Haritzalde naturzaleen elkarteak eta Kaebnai taldeak (gazteak elkarrekin bizitzen ikasteko programaren baitan) antolatu dute hitzordua, Donostiako Udalaren eta Gizalde elkartearen laguntzarekin.

"Bertan sortzen diren harremanak arbolen sustraiak bezala errortzea espero dugu", nabarmendu zuen atzo Naiara Sampedro Gazteria zinegotziak. Zazpi urte daramatzate hi-tzordu hau antolatzen eta aurreko esperientzien arabera, gazteek ondo pasatzen dutela eta harreman berriak egiten dituztela azpimarratu zuen baita Aritz Azkona Kaebnaiko kideak ere. "Landareei buruz ere ikasten dugu", gaineratu zuen.

Haritzalde elkarteko Marko Sierrak azaldu zuenez, larunbatean 12.00etan dute hitzordua gazteekin. Baina lehenago, 10.00etan, Club Vasco de Campingeko kideekin arituko dira zuhaitzak landatzen. Guztira, 142 jarriko dituzte larunbatean, lizarrak gehien bat (Gipuzkoako Aldundiaren eskutik). Eta azken urteotan Puio maldan guztira 2.000 zuhaitz baino gehiago jarri dituztela nabarmendu zuen, gutxinaka hazten jarraitzen dutenak.

Gazteak ez ezik, familiak eta umeak ere gonbidatuta daude larunbateko hitzordura, baina zapata egokiak eraman behar direla gogoratu zuten. Lanean hasi baino lehen hamaietako bat izango dute indarrak hartzeko. Eta ondoren, Kaebnaik ere bazkari bat antolatuko du gazteekin.

Cargando comentarios...



Publicidad

-
-
-
-
- © Diario de Noticias-Edición Digital
-
-
-